

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3793

EBAZPENA, 2018ko uztailaren 10ekoa, Kulturako sailburuordearena, Dantza sustatzeko diru-laguntzak emateko Balorazio Batzordeko kideak izendatzen dituen eta haren osaera argitaratzen duena.

Aztertu da Dantza sustatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2018ko uztailaren 10eko Agindua.

Agindu horren 9. artikulua xedatzen duenez, modalitate bakoitzean aurkeztutako eskabideak aztertu eta ebaluatzeko, balorazio-batzorde bat eratuko da, eta Kulturako sailburuordearen ebazpen bidez izendatuko dira batzorde horretako kideak eta argitara emango da batzordearen osaera.

Horiek horrela,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Balorazio-batzordeko kideak izendatzea eta batzorde horren osaera argitaratzea.

Mahaiburua: Aitziber Atorrasagasti Calcedo andrea (Kultura Sustatzeko zuzendaria).

Idazkaria: titularra eta ordezkoa, hurrenez hurren, Imanol Arana Ariz eta Mikel Etxeberria Agirre-sarobe (Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko teknikariak).

Batzordekideak:

a) Dantza-lanak I eta Ekoizpenak II: Laura Etxebarria Lus; Isabel Ferreira Zarzuela; Mey Ling Bisogno; Ana López Asensio; Fernando Piñeiro Fernández. Ordezkoa: Ana Remiro Esnoz.

b) Dantza konpainiak sendotzea: Lide Arana Arregui; Ana Remiro Esnoz; Gabriel Ocina Saenz de la Fuente. Ordezkoa: Ana López Asensio.

Bigarrena.— Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu dadin agintzea, jende guztiak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailaren 10a.

Kulturako sailburuordea,

JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.